



ETXARRI ARANAZKO UDALA
Kale Nagusia 10 (KP 31820)
Tef. 948460004
udala@etxarriaranatz.eus
www.etxarriaranatz.eus

EDIKTUA

2016KO EGUTEGIAREN ONESPENA ETA EGUN BALIOGABEEN DEKLARAZIOA

Gaur egun ordezkari sindikalak ez izanda, eta langileak informatuta, Alkateak bere proposamena azaldu du.

Honako xedapen hauei jarraikiz: 210/2015 EBAZPENA, maiatzaren 15ekoa, Arriskuen Prebentziorako eta Lanaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan, ordaindu bai baina errekuperatu behar ez diren 2016ko jaiegunen egutegi ofiziala ezartzen duena; Osoko Bilkurak, 2015eko azaroaren 25ean, aho batez erabaki du:

1. 2016ko jaiegunen egutegi hau onestea eta egun baliogabeen deklarazioa.
Urtarrilaren 1a: urte berria
Urtarrilaren 6a: Errege eguna
Martxoaren 24an: Ostegun Santua.
Martxoaren 25ean: Ostiral Santua.
Martxoaren 28an: Pazko astelehena
Ekainaren 13a: San Kiriko
Ekainaren 16an: San Adrian
Uztailaren 25ean: Santiago Eguna
Abuztuaren 1, 2 eta 3 : Herriko Jaiak.
Abuztuaren 15a: Abuztuko Andre Maria
Urriaren 12: Pilar Ama Birjinaren eguna
Azaroaren 1a: Domu Santu eguna
Abenduaren 3an: San Frantzisko Xabierko eguna (Larunbata)
Abenduaren 6a: Konstituzio eguna
Abenduaren 8a: Ama birjinaren eguna
Abenduaren 26a: Gabonak

Orobat, baliogabeak izanen dira, 2015. urtean epeak kontatzeari dagokionez, igande guztiak eta udal bulegoetako jaiegunak.

2.-Etxarri Aranazko Udalaren bulegoetan, eguneko lanaldia 7 ordu eta 22 minutukoa izanen da, astelehenetik ostiralera, 216 egun eta ordu bat, eta zerbitzuen beharren arabera osatu beharko da urteko lanaldiaren lanordu-kopurua, 1.592 ordukoa baita. Arlo bakoitzeko langileak zerbitzuetara egokitutako ordutegia izango du eta aurrerago zehaztuko da.

3.-Erregistro orokorra 10:00etatik 14:00etara egonen da irekita, jendea hartzeko

Etxarri Aranatz, 2015eko abenduaren 11an
Alkatea: Eneka Maiz Ulaiar



Eneka Maiz